



3 PSE-EE

Atsobakar egoitzaren esku aldaketarekin pozik

Akordio batera iritsi dira PSE eta EH Bildu, Gipuzkoako Batzar Orokorretan. 'Kabia' izeneko erakundea sortuko dute, Gipuzkoako hainbat zaharren egoitza kudeatzeaz arduratzeko. Horien artean herriko Atsobakar egoitza. Sozialistek aspaldiko eskaera zela eta bere poza azpimarratu nahi izan dute agerraldian eta udalari, aurreztuko duen dirua "herria hobetzeko" bidera dezan eskatu diote.

6 KIROLA

Aitor Otamendi herritarra New Yorkeko Maratoian

Lasarte-Oria Bai!, New York, Behobia eta Donostiako maratoia kateatuko ditu aurtan Aitor Otamendi herritarra. Gaur abiatu da New Yorkera eta igande goizean munduko txoko ezberdinetatik iritsitako milaka korrikalarekin batera ekingo dio 42 kilometro eta 195 metroko ibilbideari. Lasterketaren aitzakitan, familiarekin turismoa egiteko baliotuko ditu han egun batzuk.



Fernandez Iradiren epaia atzeratu egin da

Herritarraren beste osasun azterketa bat eskatu du epaileak

Ibon Fernandez Iradi herriko presoaren egoera salatzen hainbat ekimen izan dira azken asteetan. Atzo epaileak beste osasun azterketa bat eskatu zuen eta horrela, martxoaren 26ra arte luzatu du honen askatasun eskaerari buruzko erabakia. Auzia ebazteko egingo dioten hirugarren azterketa medikoa izango da agindutakoa. Gaurko mobilizazioa deitu dute Okendon 20:00etan.



Ahaldun Nagusiak harrera egin zien larriki gaixo dauden preso senideei, ezkerrean, Ibon Fernandez Iradiren gurasoak.

Atzo epaileak jakitera eman zuen Ibon Fernandez Iradi herriko presoak martxorarte behintzat espetxean egon beharko duela. Beste mediku azterketa bat eskatu da honen osasun egoeraz sakontzeko. Bi medikuk landuko dute txosten hori; otsailaren 27an aurkeztu beharko dute informea.

Azken asteetan herritarraren egoera hainbatetan salatu da, eta asteazkenean, gaixo dauden preso senideak hartu zituzten Martin Garitano Ahaldun Nagusiak eta Marina Bidasoro Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren zuzendariak. Ekitaldi horretan izan ziren ere Ibon Fernandez Iradiren gurasoak.

Eurekin bildu ostean, Garitanok eskaera egin zuen "instituzio garen heinean, gaixorik dauden presoak berehala libre uzteko".

"Bizi dugun garaian, ezinbestekoa iruditzen zaigu euskal presoei aplikatzen zaizkien salbuespenezko espetxe-neurriak indarririk gabe

uztea". Garitanok salatu zuen presoaren eskubideak urratuak izan direla: "Estatu espainiarra eta frantsesak urratu egin dituzte espetxean dauden presoaren eskubideak, Nazioarteko legediak arautzen dituenak. Urraketa horiek sufrimendu handia eragiten dute Gipuzkoako eta Euskal Herriko gizartean. Eta sufrimendu hori buka dadin, salbuespen neurriak desagerrarazteko legea aplikatzeko eskatzen diegu Espainiako eta Frantziako gobernuari. Hala nola, sakabaketa-politikari amaiera ematea eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia betetzea eta, beraz, zigorra bete duten presoak aske uztea".

Oihu Anizkoitza

Bestalde, "Oihu Anizkoitza" dokumentala aurkeztu zuten astelehenean Manuel Lekuona kultur etxean. Esklerosi anizkoitza du Fernandez Iradi, gaixotasun sendaezin eta degeneratiboa da eta bere



Dokumenatala Manuel Lekuonan ikusi ahal izan zen astelehenean.

egoera islatzeko senideak, abokatuak, Jaiki Hadiko medikuak, gaixotasun bera duten pertsonak eta legelariak agertzen dira ordu erdi irauten duen dokumentalean.

Fernandez Iradik kalean zergatik behar lukeen argudiatzen dute honetan: ospitalera eramateko oztopoak, legearen interpretazioa, esklerosi anizkoitzak sortzen dituen ondorioak, espetxean gaixotasuna artatzeko zailtasun eta ezinezotasuna... "Ibon maite dugunok" sinatuta doa lana. Urtebetez lanke-

tan aritu direnak ordea Beñat Iriondo, Rosa Ormazabal, Donetz Iradi, Ane Fernandez Iradi, Asier Burgaleta, Oihana Salazar eta Jurdana Anton herritarra izan dira.

Ekitaldian gogorazi zuten Ibon Fernandez Iradi ez dela larriki gaixo dagoen preso bakarra.

Kasu itzulezinak pairatzen dituzten beste preso askatasuna ere eskatu zuten bertan bildutakoek eta gaur 20:00etan Okendon egingo den mobilizaziorako deia zabaldu zuten.

Susana
Peluquera-Estilista
Zubieta enparantza z/g
(Carrefourreko atzekaldean)
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 373383

PRODUKTU BERRIAK
Ile tratatzeko produktu erabat naturalak

AZAROAn
asteartetik ostegunera
gure ZERBITZU
GUZTietan

%5eko deskontua +
ile-tratamendu birsortzaileak

Hitzordua aurrez eskatuta
Moztu eta ekarri kupoil hau

Adituak dio



Luisa Irastortza
Udaleko Langilea

Betiko ohiturak aldatzea ere gure gain dago

Guk euskaraz, zuk zergatik ez? Esaldi ezagun honek erakusten digu euskararen aurrean hartu behar dugun jarraera. Lehen hitza euskaraz eginda ingurukoak ere euskaraz egitera gonbidatzen ditugu. Lehenbizi euskaldunok kontzientziatu behar dugu, gure hizkuntzak beste hizkuntzek adina garrantzi duela, eta ez gaitezen gu izan alde batera utzi eta hizkuntza galtzearen errudun.

Betiko ohiturak aldatzea ere gure gain dago. Gai izan behar dugu beti erdaraz hitz egiten dugun inguruko jendearekin ere euskaraz egiteko. Aukera eman behar diegu euskara entzuteko eta euskaraz hitz egiten saiatu daitezzen eta ez aukera hori kendu, gehienetan gertatu ohi den bezala.

Gure hizkuntzarekin harro sentitu behar dugu eta hori da gainontzekoei transmititu behar dieguna, lasaitasun handiz hitz egiteko gai garela inongo presiorik gabe.

Administrazioari dagokionez ere, eta gu batez ere, bertako langile izanik, herritarren aurrean eredu bezala azaldu behar dugu, beraiengana euskaraz zuzenduz, herritarrek animatuz euskaraz egin dezaten eta ahalik eta arreta euskaldunena eskainiz.

Guztiok elkarrekin lortu behar dugu gure hizkuntza bizirik mantentzea, ezagutzen dugunok praktikan jarritz eta ez dakitenei animatu eta aukera emanez.

Zorion agurrak



Nadia, Aitor eta Ibon

Zorionak aitaxo, aiton-amona eta izeba-osaben partetik! Bederatzi muxu potolo!



Asier eta Andoni

Zorionak zuen 11. urtebetetzean. Muxu asko familiaren partetik.



Haizea

ZORIONAK Haizea, sargenta Rotemeyer onena izan zarelako. Asko maite zaitugu!!!



Maialen

Zorionak maitia zure zortzigarren urtebetetzean familia guztia- ren partetik. Asko maite zaitugu!



Patxi

Zorionak aitaxo, ondo pasa zure egunean eta disfrutat. Muxus Eñaut, Eneritz eta Maribelen partez!



Nahuel

Zorionak puma! Dagoeneko 6 urte gure gizontxoak. Muxu handi bat ama, aita, Sayen eta Luanaren partez!



Intza

Zorionak printzesa! Ondo pasa urtebetetze egunean. txokolatezko bost muxu potolo!



Natalia

Zorionak wapisisima..! Izan dezakegun ahizpa eta izebarik onena zara. Mila esker asko maite zaitugu!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Salerosketak

- Garaje itxia salgai erdialdean, Zapategi kalean. 14 metro karratu ditu. 22.000 euro. 607 49 16 63, Aritz.
- Garajea saltzen da erdialdean, Super BMn. 610 73 32 64 / 600 41 43 31
- Garaje itxia alokatzen da Nagusia 69 zenbakian. 70 euro. 943 57 59 64
- 75m2ko etxea alokatzen da Sasoetan. Hegoaldera ematen du eta hiru gela eta bi komun ditu. 605 77 04 36
- Motoa Salgai Honda CBF 600S (500-ra limitatzeko aukera) 2004koa. 3.200 euro. 630 03 27 79
- Garajea saltzen dut Antxuenea Enparantza 5ean. 600 414 331.
- Pisukide bila nabil. Etxe polita eta argitsua da, zentroan, hilabetean 300 euro. Pilar 647 88 42 78

Lan-eskaria

- Interna edo externa moduan etxeko garbiketa lanetan edota agure zein haurren zaintza lanetan aritzeko prest. 639 41 22 33
- Lana bilatzen dut garbiketan, nagusien edota haurren zaintzan. Paperak egunean eta erabateko prestutasuna ordutegiei dagokionean. 669 93 10 26
- Interna moduan pertsona helduak zainduko nituzke. Esperientzia daukat eta paperak egunean. 645 78 72 72
- Umeak, agureak zaintzeko neska arduratsua eskaintzen da. Maria 630 75 14 03
- Lana bilatzen dut nagusien zaintzan. Paperak egunean eta esperientzia 602 59 67 35, Jenny
- Lehen Hezkuntza eta DBH-ko ikasleentzat klase partikularrik emateko prest. 649 20 76 69

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Markel Xabat Zanca Sabino urriaren 26a.
- Julen Aimar Lagos Peralta urriaren 24a.
- Haitz Urreizti Eizaguirre urriaren 20a.
- Nora Cantos Casco urriaren 21a.

Heriotzak

- Estefania Toledo Eceiza urriaren 29an, 97 urte zituela.
- Jose Felix Arruti Lizaso urriaren 29an, 82 urte zituela.
- Rosa Murguiondo Lasa urriaren 24ean, 82 urte zituela.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 12**
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Larunbata, 13**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Igandea, 14**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Astelehena, 15**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Asteartea, 16**
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteazkena, 17**
Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9 943 019521
- Osteguna, 18**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri 11,
Hernani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

- Osasun Zentroa 943 007960
- DYA 943 464622
- Gurutze Gorria 943 363953
- Udaltzainak 943 362442
- Ertzaintza 943 288888
- SOS Deiak 112

Udalaren telefonoak

- Erregistroa 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldegia 943 376182
- Kulturetxea 943 376181
- Gizarte Zerbitzuak 943 376179
- KIUB 943 361605
- Udal euskaltegia 943 361621
- Muntteri AEK 943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maider Azurmendi, Iñigo Gonzalez, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALA

Murrizketarik ez Atsobakarren

Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatuko du zaharren egoitza

Akordio batera iritsi dira berriki PSE eta EH Bildu, Gipuzkoako Batzar Orokorretan. 'Kabia' izeneko erakundea sortuko dute, Gipuzkoako hainbat zaharren egoitza kudeatzeaz arduratuko dena. Horien artean egongo da Atsobakar. Lasarte-Oriako Udalak kudeatu du urteotan, baina PSEk salatu duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zeregina da hori. Orain hartuko da ardura; langile kopurua eta zerbitzuak ez ditu murriztuko.



PSEko Lourdes Acevedo eta Jesus Zaballosek, astelehenean egin zuten agerraldian.

"Hala ere, salatu nahi dugu urteotan guztietan Foru Aldundiak ez duela bete bere zeregina. Adineko pertsonen egoitzak kudeatzeko ardura berea da izatez, baina lan hori gure herriko udalak hartu du bere gain".

Aspaldiko eskaera

Ardurak 2001ean banatu zituen Eusko Jaurlaritzak. Dekretu bat onartu zuen orduan; Diputazioek adineko pertsonen egoitzak kudeatu behar zituztela erabaki zen.

"Lasarte-Oriaren kasuan dekretua ez da bete, udal-txeak kudeatu duelako Atsobakar urteotan guztietan. Berea ez den zeregin bat betetzeagatik, 8 milioi euro gastatu ditu urte hauetan", adierazi zuen Zaballosek. "8 milioi euro horiek faltan bota ditugu urte hauetan, udalak ezin izan duelako diru hori

beste hainbat gauza hobetzera bideratu: errepideetara eta kale garbiketara, adibidez".

PSEk "aspalditik" darama eskatzen Foru Aldundiak bere gain hartzeko Atsobakar kudeatzeko ardura, Zaballosek zehaztu zuenez: "2010ean mozio bat aurkeztu genuen udalbatzarrean, eta 2011n proposamen bat egin genuen: errekurtsio administratibo eta judizialak abiaraztea Foru Aldundiaren aurka, bere ardura ez betetzeagatik. Zoritxarrez, ez genuen babes nahikoa lortu".

Inbertsioak herrian

"Lasarte-Oriako Udalak Atsobakar kudeatuko ez duenez, 1.200.000 euro gehiago izango ditu herrian inbertsioak egiteko. Udal taldeari eskatzen diogu herria hobetzera bideratu ditzala", esan zuen Zaballosek.

TXINTXARRI

Atsobakar zaharren egoitzaren kudeaketa eskuz aldatuko da. Lasarte-Oriako Udalak eduki du ardura orain arte; hemen aurrera Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain ardura hori.

Aldaketarik ez da egongo egoitzan eskaintzen zen zerbitzuan, ezta bertan lan egiten duten langileen kopuruan ere, PSEk astelehenean azaldu zuenez: "Pozik gaude eskumen aldaketa guk beti eskatu bezala egingo delako, murrizketarik egin gabe zerbitzuetan eta langile kopuruan", azaldu zuen Jesus Zaballok bozeramaileak. "Gauza bakarra aldatuko da: fakturak Gipuzkoako Foru Aldundiari iritsiko zaizkio, ez gure herriko udaletxeari", azpimarratu zuen.

Omenaldia Lasarte-Oriako odol-emaileei

Herriko odol-emaileek Omenaldia jaso zuten beste urtebetez, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak Urrietako Oianume jatetxean igandean egin zuen bazkarian. Denera 140 lagun bildu ziren zonaldeko odol-emaileen ekitaldira. Horietatik 19 lasarte-riatarrak izan ziren eta intsigniak eta diplomak banatu zituzten odola 25 aldiz baino gehiago eman dutenen artean. Dominen banaketan izan ziren Nerea Sanchez Lasarte-Oriako Osasun zinegotzia eta Pablo Barrio alkatea.

Herritarrei dagokienez, zilarrezko domina eman zitzaizen 25 aldiz odola eman dutenei. Horiez gain, emakumezkoetan 40 aldiz eta gizonezkoetan 50 aldiz odola eman dutenei urrezkoa banatu



Omenaldia ematen duten herritar batzuk Oianumeko ekitaldian.

T. VALLÉS

zieten. Hauek dira izenez izen: Amaia Anabitarte, Maria Teresa Guijarro, Begoña Iriondo, Belen Lizarazu, Maria Pilar Sanchez, Pedro Alegre, Imanol Recondo eta Javier Valle.

Aipamen berezia Ramon Zabaletak jaso zuen, herritarrek 78 aldiz eman baitu odola urte guzti hauetan.

Lasarte-Oriaren 44 urte daromatxate odola ematen.

Giro onean, Oianumeko menua dastatuz kontu-kontari aritu ziren bazkarian. Bestalde, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak 50. urteurreneko ospakizun ekitaldia egingo du Donostiako Kursaallean, azaroaren 15ean.

KULTURA

Harkaitz Cano herritarrak Euskadi Literatura Saria irabazi du

Euskarazko haur eta gazte literatura ataleko Euskadi Literatura Saria eskuratu du Lasarte-Oriako idazle Harkaitz Canok. 'Orkestra lurterra' izeneko lanagatik jaso du saria. Gisa honetara baloratu du epaimahaiak Canoren lana: "Eraginkortasunez eta maisuki erabiltzen ditu nola hizkuntzaren bitarteko guztiak, hala literaturaren esparrukoak ere".

Euskadi Literatura Saria beste bi aldiz irabazi du idazleak. Manuren istorioa kontatzen du 'Orkestra lurterra' liburuan. Orkestra bat sortu nahi du Manuk, eta bertan joko duten lagunen bila abiatuko da, umorez eta irudimenez beteriko gertakariei atea irekita.

AISIA

Jantzi tradizionalen ikastaroa azaroan

Jantzi tradizionalei buruzko ikastaroa antolatu du Ttakun Kultur Elkarteak azaroan. Astearte eta ostegunetan egingo dituzte saioak, 15:00etatik 17:00etara, emakumeen zentroan. Ikastaro horretan izena eman nahi dutenek Ttakun K.Era deitu beharko dute (943 37 14 48 zenbakira), edo bestela Geltoki Kaleko 4. zenbakian duen bulegotik pasa (Jalgi tabernaren ondoan). Ttakuneko bazkide direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte, eta 25 euro bazkide ez direnek.

KIROLA

Lasarte-Oriako kirol gunea itxita erabiltzaileentzat larunbatean

Erabiltzaileentzat itxita egongo da herriko kirol gunea (Michelin) larunbatean, azaroaren 1ean. Kirol gunetik esan dute egun horretan Lasarte-Oriako Kiroldegia, Andoaingoa eta Usurbilgoa erabili ahalko dituztela erabiltzaileek. Pizina irekita egongo da Kiroldegian, 9:00etatik 13:00etara. Hala ere, Kiroldegitik ohartarazi dute 9:30etatik 11:00etara erabiltzaileek ezingo dutela pizina erabili, haurren ikastaroengatik.

TSST

Autobus zerbitzu bereziak Domu Santu egunean

TSST autobus konpainiak jakinarazi du zerbitzu bereziak egongo direla Domu Santu egunean. Gaur arratsaldean hiru autobus berezi ibiliko dira, 16:00etatik 18:00etara orduro. Antxisuko geltokitik (Orian, herri sarreran) abiatu, Zabaletatik pasa eta hilerrira joango dira. Gero Antxisura bueltatuko dira. Bihar berri, bost autobus ibiliko dira, orduro, 9:00etatik 13:00etara. Ibilbidea gaurko autobusen berbera izango da.

EAJ, Teresategiko lurren auzia "zehatz-mehatz" argitzearen alde

EH Bilduk salatu zuen Eduela hilabete Teresategiko lurra "milioi bat euro gehiagotan" gainbaloratu zituela PSE-EEK 2006an, hirigintza hitzarmena sinatu zuenean. Lasarte-Oriako EAJk adierazi du ohar bidez salaketa horretatik desmarkatu egiten dela, "aurkakoa pentsatzera eramaten duen frogarik" egon ez bitartean.

"Parte hartu izan dugun eta gaia eztabaidara eraman den Hirigintza batzorde orotan erabilera industrialia izango zuen eremu bat bezala aurkeztu zitzaizun Teresategiko eremua. Beraz, aurkeztu ziren balorazio guztiak erabilerari horri egokitzen ziren", zehaztu du EAJk.

EAJk gogorarazi du "oso kritikoa" izan zela bere

garaian alkatetzarekin eta promotorarekin, ez zetorrelako bat biek erabaki zuten permuta sistemarekin: "Kolpe bakar batez ezabatu zituen sistema horrek Okendo eremua garatzeko lehiaketa publiko bidezko prozedurak. Hori bai, horrek ez du esan nahi bere garaian permuta sistema hori egiteko aurkeztu ziren balorazio teknikoak, ezta gutxiagorik ere".

"EAJtik uste dugu bidezkoa dela gauzak bere lekuan jarri eta gertakariak zehatz-mehatz azaltzea. Gu izango gara lehenengoak gure udaletxean gertatzen den legez kanpoko edozein gertakari salatzen", zehaztu dute Lasarte-Oriako jeltzaileek.



“Estresatuta ote nago, psikologo andrea?”



Hitzetik hortzera darabilgun hitza da estresa. Urduritasuna, deserosotasuna, ezintasuna, ezgaitasuna eta abar dira estresari lotutako sentipenak, egoera ekonomikoa dela, harreman pertsonalak direla, lan kontuak direla.... Gaurkoan, ordea, hizkuntzen erabilerak era-

gin dezakeen estresari buruz jardun nahi dugu. Bai, bai, estres linguistikoari buruz, eta Valentziatik etortzako Gemma Sanginés psikologoari TXINTXARRIK egin zion elkarrizketan bildutakoak hartuko ditugu hizpide, hausnarketarako baliagarri gertatuko zaizkigulakoan.

1

Edozeini zuzendu al dakiokete TELP saioa?

Gemma: Esango nuke beharrezko dela hizkuntza kontzientzia edukitzea. Euskal hiztun batzuek arazorik ez dute gaztelarara pasatzeko. Ez die karga edo deserosotasuna eragiten. Arazoa dute euskaraz bizi nahi duten hiztunek

Euskaraz bizi nahi dugunok izaten omen dugu arazoa. Arazoak izatea ez da, ba, eroso. Ez horixe! Beraz, hizkuntza kontzientzia lantzea izan daiteke konponbidea. Kontzientziaduna al zara zu? Eta ingurukoak, nola ikusten dituzu?



2

Autoestimu falta aipatzen duzue...

Gemma: Bai, autoestimu falta eta errudun sentimendua. Gure jokaera askok hori erakusten dutelako. Lagun talde euskaldunean euskaraz ulertzen ez duen norbait sartzen bada zer egiten dute besteek? Gaztelaraz hitz egiten dute berarekin baina baita gainontzekoekin ere. Hori zergatik egiten dugun galdetuta, erantzuna izan ohi da beste pertsona deseroso edo gaizki ez sentiarazteko dela. Baina egoera horretan, ez al gara gu deseroso sentitzen gure lagunekin gaztelaraz mintzatzera derrigortuta?

Hau marka! Besteak eroso sentiarazteko ahaleginetan, guk deseroso bukatu. Lehenengo errudun, eta deseroso ondoren. Balantza hau ez dabil batere ondo. Nire ustez, oreka berriak bilatu beharrean gaude. Norantz egiten du zure hizkuntza-balantzak, erosotasunerantz ala deserosotasunerantz? Nola ulertzen duzu zuk erosotasuna?



3

Zer egin behar dute erakundeek?

Gemma: Euskara erakargarri egin behar dute. Kanpaina onak egin direla iruditzen zait. “Lehenengo hitza euskaraz” adibidez, oso eraginkorra da. Euskaldunari begi kolpez adierazten diozu euskaraz zuzendu daitekeela langilearengana, zerbitzua euskaraz jaso dezakeela, etab. Horrek nekea kentzen dio hiztunari, ez du estres linguistikorik pairatzen.

Ezagutzen al duzu “Lehenengo hitza euskaraz” kanpaina? Eta, lagundu al dizu estres linguistiko delako hori arintzen? Esaten nizuen bada nik, euskaraz lasai eta natural egitea dela ondo sentitzeko bidea, baita erakundeetan ere. Kanpora estres hori!



Lehenengo hitza da giltza

Euskararen bidegorria hobeto ezagutu nahi baduzu, egin klik hemen eta ikusi bideoa: www.lasarte-oria.org



LABURRAK.-

Xabi Prietoren debuta Ohorezko B mailan

Joan zen larunbatean Zarauzko Astin egin zuen debuta errugbi jokalaririk lasarteoriatarrek. Eibarren aurkako partida izan zen, ligako 6. jardunaldikoa. Prietorekin zazpi dira jadanik Beltzak Rugby Taldearen harrobian jokatu eta Espainiako 2. mailan debuta egin duten herritarrak.

Asteburuko neurketari dagokionez, Unai Urruzolak, David Vegak eta Ander Rekondo herritarrek ere jokatu zuten. Prietok 70. minutuan egin zuen salto berdegunera. Ordurako Zarautz jaun eta jabe zen markagailuan, partida hasiera etxekoek dominatu zuten eta bigarren zatia berdinduago joan bazen ere, azken emaitza 18-5ekoa izan zen Zarautzen alde.

Bihar Burgosera bidaiatuko dute UBU taldearena aurka jokatzeko, sailkapenaren goiko aldean aurkari zuzena da Burgos Ohorezko B maila berdindu honetan.

LOKEko judokak Iruñean eta Salamancan

Asteburuan hasi du denboraldia LOKeren judo alorrak. Salamancara eta Iruñeara joan ziren bidaiak luzeak eginez. Seniorrek Espainiako Kopako jardunaldia izan zuten larunbatean eta Asier Sagasti aritu zen bertan lehian. Borrokaldi bat irabazi eta beste bat galdu egin zuen, oso gutxiatik.

Salamancan aldiz, hiru juniorrek egin zuten borrokan: Ion Arroyok, Fermin Baldak eta Josu Olmosek. Azken honek lau borrokaldi lehiatu zituen, bi irabazi eta bi galduz. Emaitza horiekin, brontzeagatik borrokan egiteko sailkatu zen, baina tamalez ezin izan zuen domina kolokatu. Dena den, oro har txapelketa ona egin zuen Olmosek eta bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Balda eta Arroyok berriz, borrokaldi bakarra egin ahal izan zuten kanporatuak izan aurretik.

Datorren asteburuan Ion Arroyo, Fermin Balda eta Josu Olmos Avilesera joango dira lehiatzera hiru infantilekin batera, azaroaren 8an juniorrek Amurrión daukate txapelketa, 15ean kadeteak Hondarribian arituko dira eta hilaren 23an senior eta infantilek Hernanin lehiatuko dute.



LOKE

Ostadar-Antonio aroztegiak Hirugarren Mailako derbia irabazi du Tolosalaren aurka

Herrian dagoen areto-futbol talde nagusiak errebasoa eman zion Tolosala Hirukide taldeari. 4-0 irabazi zuten kiroldegian, sekretu handirik izan ez zuen neurketan. Lourdes Murilloren mutilek partida handia egin zuten eta defentsan erakutsitako sendotasunak eraman zuten garaipenera talde urdin-beltza. Erasoan fin aritu ziren, baloia hara eta hona erritmo biziarekin mugituz eta tolosarrek baloiaren atzetik ibili behar izan zuten.

Lehenengo gola Asier Perezek sartu zuen 10. minutuan, aldaratze bat aprobetxatu eta baloia areaz kanpotik astinduta. Bigarren gola handik bost minutara egin zuen Iñaki Merinok, urrutiko jaurtiketa baten bidez. Markagailuan 2-0ekoa jartzen zuela hartu zuten jokalariek aldageletarako bidea.

Bigarren zatian gauzek berdin-berdin jarraitu zuten. David Ferrerok sartu zuen hirugarren gola eskuadrako armiarma-sareak kenduz eta laugarren eta azken gola Iñaki Merinok egin zuen berriro zela erditik. Tolosarrak itsu-itsuan saiatu ziren partida iraultzen, baina garesti atera zitzaion atezain-jokalariekin jokatzera. Azken emaitza 4-0ekoa, lanean bide beretik jarraitzeko konfidantza handia ematen duen garaipena eskuratu zuten lasarteoriatarrek.

ISU Leihoak taldeak bere aldetik, Allerru 5-0 menderatu zuten Asier Avila, Manex Lizarra, Lander Martin (2) eta Javi Solchagaren golek. Gipuzkoako I. Mailako neurketa izan zen asteburukoa.

Azkenik, Cecilia Fruta Denda Kebab Ostadar taldeak. Gipuzkoako hirugarren mailako partida jokatu zuen asteburuan. Hiruna berdindu zuten Gamon Izadi-Jazz taldearen aurka etxetik kanpo, Erreterian.

MARATOIA.-

Aitor Otamendi New Yorkera doa
Herritarrak 42 kilometroko proba mitikoa egingo du AEBetan

Gaur goizean hartu du lasarteoriatarrek Atlantikoa zeharkatuko duen hegazkina. Ozeanoaren bestaldean, New Yorkeko maratoi ezaguna du zain Aitor Otamendik. Lasarte-Oria Bai!, New York, Behobia eta Donostiako maratoia kateatuko ditu.

JON ALTUNA EGITEGI

Korrikalari diesela da Aitor Otamendi, arnasa luzekoa. Distantzia luzeak gustatzen zaizkio, honezkeru lau maratoi egin ditu, denak Donostian, eta bosgarrena ospatzera New Yorkeko maratoi handira joan da.

“Asko gustatzen zaigu bidaiatzea eta maratoiaren aitzakiarekin turismoa egiteko erabiliko dugu bidaiak”, adierazi du Otamendik.

Ez pentsa ordea denborapasa doanik AEBtara: “asmoa 3 ordu eta 20 minuturen bueltan ibiltzea da, gozatu egin nahi dut, gehiegi lehertu gabe. Izan ere, ibilbidea gogor xamarra da hasieran eta baita 35. kilometrotik aurrera ere”, adierazi du.

Lasterketan, Brooklyn, Bronx eta Queens auzoak, Central Park, 5. Etorbidea... ikusteko aukera izango du Otamendik, munduko lasterketarik ezagun eta jendetsuenen.

Proba amaituta, bikotearekin eta koinatarekin berrikusiko ditu txoko ezberdinak, baina paseoan, lasai ederrean.



Aitor Otamendi herritarra aurtengo Lasarte-Oria Bai! Krosean.

Bidaia luzea

Gaur goizeko 8:00etan abiatu dira Bilbotik Madrilera, handik zuzenean New Yorkera hegazkina hartzeko. Ameriketara lur hartu eta larunbatean dortsalaren bila joango da Otamendi, igande goizean zapatilak lotu eta 42 kilometro eta 195 metroak osatzeko. (hemen 15:30ak direnean abiatuko da NY Marathon).

Entrenamendu sistema

Aste hau lasai hartu du Otamendik, entrenamendu bakarra egin du igandean gorputza sasoi betean edukitzeko.

“Oro har laguntza handia izan dut entrenatzen. Kuadrilako beste batekin aritu naiz kilometroak egiten eta entrenamendu luzeetan bizikletan laguntzen aritu zaizkit, oso eroso da hori, ura ematen didatelako, gelak, distantziak neurtzen dizkirate... Bi ordu pasatxo entrenatzen dituzue eroso eta motxilarik gabe joatea oso garrantzitsua da, eta batez ere psikologikoki laguntza handia ematen

didate, oso eskertuta nago”, esan du Otamendik.

Astean hiru egunetan entrenatzen du, sentazioen arabera. Serieak, distantzia erdia eta tirada luzea. Koadernotxo batean apuntatzen ditu entrenamenduak, pultsazioak eta erritmoa, serieetako denborak eta kilometroak, dena. Aurten jadanik 800 kilometro sartu dizkio gorputzari, ekaina amaieratik hasita.

“Maratoi baten prestaketan eta lasterketan bertan %40 burua dela uste dut. Entrenatu beharra dago, jakina, baina normalean bi txakalaldi izaten dira proba hauetan 26. kilometroan hankak gogortzen hasten zaizkizu eta 35. kilometroan horma famatua dator. Psikologikoki prestatuta ez bazaude akabo, minutu sorta handia joango zaizu”, ohartarazi du Otamendik.

Aurtengo helburua argi du: “Nire hirugarren maratoian 3:08ko denbora egin nuen, ea aurten Donostikoan hobetzen dudan”.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 1

Michelin, 10:00etan

Ostadar SKT - Añorga KKE
Infantil Txiki, 5. jardunaldia.

Michelin, 11:30ean

Ostadar SKT - Tolosa
Infantilen Ohorezko maila,
5. jardunaldia.

Lezama, 11:15ean

Athletic Club - Ostadar SKT
Kadeteak, Euskal Liga
8. jardunaldia.

Michelin 15:30ean

Ostadar SKT - Lengokoak KE
Jubenilen I. maila,
7. jardunaldia.

Añorga, Rezola 15:30ean

Antigua Luberrri - Ostadar SKT

Emakumezkoen Lurralde Maila
6. jardunaldia.

Michelin 17:15ean

Ostadar SKT - Martutene
Ohorezko Erregionala,
8. jardunaldia.

Trintxerpe, 17:30ean

Trintxerpe - Texas Lasartearra
Erregionalak, I. maila
7. jardunaldia.

Donostia, Cesar Benito 19:15ean

Lengokoak - Ostadar SKT
Jubenilak, Ohorezko Maila
7. jardunaldia.

Igandea 2

Michelin, 10:00etan

Ostadar SKT - Kostkas
Kadeteak, I. maila,
7. jardunaldia

Michelin, 11:30ean

Ordizia KE - Ostadar SKT
Infantilen Ohorezko maila
3. jardunaldia.

ERRUGBIA

Larunbata 1

Hernani, Landare 11:00etan

Hernani - Zarautz Beltzak B
Herriko sub 14 kategoriako jokalariek
Ligako partida jokatu dute.

Michelin, 13:45ean

Zarautz Beltzak A - La Unica
Herriko sub 14 rugby taldeko jokalarien
Ligako partida.

Burgos, San Amaro zelaia 16:00etan

Aparejadores Burgos - Zarautz RT
Herriko senior jokariek Ohorezko B
mailako neurketa garrantzitsua jokatu dute Burgosen, aurka.

Agenda

Ostirala, 19:30ean Brigitarren Komentuan



Errezitaldi lirikoa

Ainhoa Merzero irakaslearen kantuko ikasleek osatutako Manuel Escudero abesbatzak errezitaldi bat eskainiko du Javier Perez de Azpeitia pianojolearen laguntzarekin. Donostiako kontserbatoriko kideek opera eta zartzuelako duoak eskainiko dituzte besteak beste. Danok Kide elkarteak antolatutako X. Musika Topaketan baitako emanaldia izango da Brigitarren komentuan gaur entzun ahal izango dena. Sarrera doan da.

Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Azaroak 5, 18:00etan

Kontukantoiarekin ipuin kontalari saioa haur liburutegian. Honakoa 6,7 eta 8 urteko umeei zuzenduta egongo da. Saiora umeak bakarrik sartuko dira. Doan.

Andoain

Musika

BASTERO

Ostirala 31, 22:00etan

Chuck Prophet & The Mision Express kontzertua. Teloneroa izango da Jonah Tolchin. Sarrera 12 euro.

Usurbil

Azoka

FRONTOIA

Larunbata 1, 11:00etatik

XIX. Artisautza Azoka antolatu du Aitzaga elkarteak. Goiz eta eguerdi partean frontoian, denetariko produktuak lantzen dituzten artisauek bilduko dira beste behin Usurbilen.

Musika

SUTEGI

Ostirala 7, 22:00etan

"Piano bat bertsotan. Gurekin abestu nahi?" emanaldia izango da. Sarrera aurrez erosita 6 euro, egunean bertan 7 euro.

Lasarte-Oria

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 31, 22:00etan

Asier Ormaza eta Oscar Terolen "Figurantes" antzezlanak ikusi ahal izango da. Euskal Herriko herrixka baketsu batetako bizimodu lasaia kolpetik aldatuko da zinema ekoizle bat euskal zaporea topatu nahian aurrekontu handiko filma grabatzera etorriko denean. Errodaje talde honen etorrerarekin, egoera zoro eta dibertigarri asko gertatzen dira. Sarrera leihatilan, 6,60 euro.

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 02, 17:00etan

"Lifi una gallina tocada del ala" filma izango da haurren zinema egitarauaren baitan. Interneten sarrera 3,18 euro eta bertan 3,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 02, 19:30ean

"El hombre más buscado" filma helduen zinema atalean, John le Carré-ren liburuan oinarrituta irailaren 11ko atentatuak ditu testuiguru. 12 urtetik gorakoentzat.

Sarrera Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 07, 22:00etan

"Relatos Salvajes" filmaz gozatu ahal izango da Okendo zinema taldeak antolatzen duen Zine Forumean. Sarrera Interneten 4,24 euro eta bertan 4,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 08, 20:00etan

"Relatos Salvajes" filma ikusteko aukera izango dute herritarrek helduen zinema atalean. Sarrera

Herritarren txokoa

Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

Txintzarri banaketa

Datozen asteetan aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egingo ditugu. Hauek egin bitartean, gerta daitezke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

Sarean

Hobelex Microsoft Office-rako zuzentzaile ortografikoa eta lexikoa

Orain arteko zuzentzaile ortografikoak duen hutsune lexikoa betetzeko asmoz, Hobelex zuzentzaile ortografiko eta lexikoa garatu du UZEI elkarteak. Tresna berriak, akatsez idatzitako hitzez gain, Euskaltzaindiaren arauetan eta Terminologia Batzordearen erabakietan "bazertertuta" edo "bigarren mailakotzat" zehaztutakoak ere markatzen ditu; eta, bide batez, kasu bietan ere, gaizki edota desegoki idatzitako hitzen ordezkotako zuzenak edota egokiak proposatzen ditu.

Tresnak berehalako lana egiten du; hau da, erabiltzaileak idatzi ahala azpimarratzen ditu zuzenak eta egokiak ez diren hitzak. Alde batetik, azpimarra gorriak egiten ditu; hain zuzen ere, akats ortografikoak, eta forma okerrak eta ezezagunak azpimarratzen ditu gorritz. Eta, beste aldetik, azpimarra berdeak (edo urdinak, bertsioa zein den); kolore horrekin, ordea, egokiak ez diren berbak identifikatzen ditu. Azpimarratuak zuzentze aldera, bide bi daude: hitzaren gainean jarri eta eskuineko botoia klikatu (idazten dugun heinean zuzendu nahi bada) edo F7 sakatu (zuzenketa testua behin idatzita egin nahi bada).

Instalatzeko, Microsoft Office 2003 edo geroagoko bertsioa izanez gero, erraz instalatu daiteke. www.uzei.com/hobelex/ loturan aurki daitezke exekutagarria eta beharrezko azalpen guztiak.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

ElkarriON kanpaina jarri du abian Atzegi elkarteak

Desgaitasunen bat duen jendearekin selfiea atera, hark eskaintako balio positiboak zein diren azaldu eta sare sozialen bitartez zabaltzera gonbidatu dituzte herritarrak

Gipuzkoako Atzegi elkarteak adimen urritasuna duten pertsonekin lan egiten du eta, azken egitasmoaren berri eman dute, #ElkarriON izenburupean. Finean, desgaitasunen bat duten ezagun, lankide nahiz lagunekin selfie edo argazki bat ateratzea eskatzen dute, haiek gizarteko edozein esparrutan emateko asko dutela plazaratzeko eta lau-haizetara zabaltzeko.

TXINTXARRI

Atzegik, adimen urritasuna daukaten pertsonentzako gipuzkoar elkarteak, prentsaurrekoa eman zuen joan den astean udaletxe atarian "ElkarriON" kanpaina aurkezteko.

Alex Tetuan Atzegiko kideak azaldu zuen aurtengo kanpainaren leloa: "ElkarriON-ek esanahi bikoitza du. Batetik elkarrekin askoz ere hobeto gaudela adierazi nahi du, on egiten diogula elkarri eta bestetik ON hori aparailuak martxan jartzeko botoia ere badenez, gizartea jarri nahi dugu martxan, sensibilizatu egin nahi dugu".

Horretarako, Atzegiko kide batekin selfiea (mugikorrarekin egindako argazkia) atera eta eskaintzen dizkieten balio positiboak zein diren kontatzera gonbidatzen dituzte herritarrak.

Patri Ayo Atzegiko familiak laguntzeko teknikariak adierazi zenez, jendeari "desgaitasuna zer den" azaltzeko eta era berean "beldurrak eta mitoak" kentzeko asmoz abiatutako kanpaina da ElkarriON. Bide horretan, Buruntzaldeako Andoain eta Lasarte-Oriako udalek hartu duten konpromisoa eskertu zuen gainera.

Udaletako esperientzia

"Aiotz langile profesionala da, bikain egiten du bere lana eta gainera udaletxeko langile ezberdin eta askorekin du

harremana. Integrazioak ez du birtuala izan behar, errealia baizik", adierazi zuen jendaurrean Ana Karrere Andoaingo alkateak.

Gurean ere Jon Roncero herritarra aritu izan da udal-txean lanean, eta haren "bertuteak" azpimarratu zituen Pablo Barrio alkateak: "Langile fina izan da beti Jon, baina ez hori bakarrik, lan-arlo eremu guztietan gertatzen den bezala, egunerokoan liskar txikiak eta tentsioak egoten dira. Bada, Jonen gisako langileek lortzen dutena da giro hori lasaitzea, goxatzea eta lasaitasun hori kutsatzea, hori sekulako bertutea da".

Jonen azken laneguneko argazki erraldoia ere gogoan izan zuen Barriok, "denok atera nahi genuen argazki horretan, zerbaitengatik izango da".

ElkarriON kanpainen parte-hartzeko moduak

Atzegik bide asko jarri ditu martxan kanpaina honekin bat egiteko.

Batik-bat sare sozialen bitartez jasoko dituzte selfieak #ElkarriON traolarekin, Facebook, Twitter edo Instagram erabilita, baina baita <http://www.atzegi.org/elkarrion> webgunearen bidez edo 609 970 706 Whatsapp zenbakira bidalita.

Jendea keinu txiki hau egi-tera gonbidatu nahi dute ekimenaren antolatzaileek.



Ana Karrere Andoaingo alkatea eta Pablo Barrio Lasarte-Oriakoa Atzegiko kideekin selfiea egiten.



>>> Ikusten duzu aldea?
Zure esku ere badago

ZURE SALTOKIA ETA ZU



Selfiea mugikorrarekin ateratako argazkia da. Alex Tetuan egiten ari den gisan.

PERTSONA, HELBURU

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO